

## 2025/2026 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazten da otsailaren 3tik 14ra (biak barne) izango dela 2025-2026 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurre-matrikulatzeko epea.

Bestalde, **urtarrilaren 25ean**, larunbata, **ATE IREKIAK** izenez ezagutzen den saioa izango dugu. Bi saio eskainiko dira: 10:00etan eta 11:30etan. Agerialde eraikin parean (Alperroburu, 5. zk.) elkartuko gara. Bertan, ikastolako funtzionamendua azalduko dugu eta ikastolan zehar ibiliko gara eraikuntza ikusiz (haurrekin etor zaitezket).

**Bertaratzeko interesa duenak, urtarrilaren 23a baino lehen, izena eman beharko du [galdetegi hau](#) betez. Anima zaitezte!**



## Jangela-zerbitzua

Abenduan jangelako bazkaldarrek izango duten menua honakoa da:

### ◆ 3-16 urtekoen menuak

[Urtarrileko menua](#)

[Urtarrileko alergia eta intolerantzien menua bereziak](#)

### ◆ Haur Eskolako (0-3 urte) menuak

[Haur Eskolako menu orokorra](#)

[Haur Eskolako alegia eta intolerantzia menuak](#)



## Gelaburuen Batzordeko bilera

Urtarrilaren 15ean, arratsaldeko 17:00etan, gelaburuen bilera ospatuko dugu Udarregi eraikinean (eraikin gorrian). Batzordearen helburuak, gurasoen iradokizunak jaso, informazio orokorra partekatu eta Ikastolako ekintzetan partaidetza sustatzea izango dira.



# HAUR HEZKUNTZA

## Material-kobrantzak

Urtarrilaren 16an, hileko erreziiboarekin batera, HHko ikasleei 2024/25 ikasturteko eskola-materiala kobratuko zaie. Materialaren kostua, **38,50 €** izango da.



# LEHEN HEZKUNTZA

## Irteerak

Datorren astean LH-ko ikasleak Txuri Urdin izotz-jauregira egingo dute irteera, izotz gaineko irristaketa lantzerako.

Urtarrilak 13, astelehena, LH6ko ikasleak

Urtarrilak 14, asteartea, LH3ko ikasleak

Urtarrilak 15, asteazkena, LH4ko ikasleak

Urtarrilak 16, osteguna, LH5eko ikasleak

Eraman beharreko materiala:

- Eskularruak
- Izotz pistan ibiltzeko arropa egokia.
- Aldatzeko arropa

Ikasleek, beti bezala, 9etarako etorri beharko dute gelara eta 12:30erako bueltan izango dira.



# DBH

Ez dago informaziorik.